



CON LAS
DEFENSORAS:
EM ARUMEON
ESKUBI DEEN
ALDE

ELKARRIZKETAK

JUNE FERNÁNDEZ | ARANCHA GARCÍA | MARUSIA LÓPEZ CRUZ
LEIRE LASA | MARTA MATO | COLECTIVO ANSUR | BASHE NUHEM

ARABA

“Itziar” Elkarteen Etxea
01003 Gasteiz
Tel: 945 27 73 85
araba@mugarikgabe.org

BIZKAIA

Vicente Garamendi Taldea 5, lokala
48006 Bilbo
Tel: 944 15 43 07
bilbao@mugarikgabe.org

GIPUZKOA

Katalina Eleizegi 46, beheka, 3. atea
20009 Donostia
Tel / Faxa: 943 44 59 77
gipuzkoa@mugarikgabe.org

Antolatzailea:



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
Declarada de Utilidad Pública

Babesleak:



Gure lana konpartitu eta babestu nahi baduzu, baduzu nola egin.

Eskerrik asko!



MUGARIK GABE, emakume eta gizonen, zein herri ezberdinen artean, ingurumena eta geroko belaunaldiekiko jasangarria eta bidezkoa den giza garapen integralaren alde egiten duen lankidetzako elkarteak. Norberakoa, soziala, politikoa eta ekonomikoa den eraldaketa bilatzen dugu, baita estatuaren egituren aldaketa ere. SALATU egin nahi dugu, baina baita AUKERAK bilatzea ere.

Bizitza eta harremanak, ekonomia solidarioa eta emakumeen zeregina gizaratean ulertzeko era berriak definitu behar ditugu. Horretarako, “Bizitze Ona”-rako denbora eta

“Gutxiagorekin hobeto bizitzea” aldarrikatzen dugu, deshazkundera ekonomiko eta bizitza erdian jartzen duen ekonomia baten aldeko apustua eginez.

Nahi dugun bidezko gizartea eraikitzeak, Mugarik Gabetik elkarre horizontala, asanblearioa eta zuzenaren aldeko apustua egiten dugu.

GENERO EKITATEA

Patriarkatuak, kapitalismoak eta krisiak emakumeen bizitzan dauzkaten ondorioak aztertzen ditugu eta baita proposamen feminista hedatzen ditugu ere. Nikaraguan, El Salvador, Guatemala eta Kolonbiako emakumeen jabeakuntzaren aldeko apustua egiten dugu eta Latinoamerikan eta Euskal Herrian, zein gure elkartearen, sustatzen ditugun prozesu guztien bitartez, emakume eta gizonen arteko harreman bidezkoagoak sortzen ditugu.

HERRI INDIGENAK

Herri indigenen gizabanako eta kolektibo eskubideen defentsaren alde lan egiten dugu,

era berean, Bizitze Ona paradigmatik datozen alternatiba zein estatu plurinazional eta nazioarteko zuzenbideen alde. Guatemalan herri indigenekin eta emakume antolatuekin ari gara lanean, Bolivian komunikatzaile indigenak sortzen ditugu eta Kolonbian hezkuntza eta autonomia indigena bultzatzen dugu.

BIZITZA JASANGARRIAK ETA EKITATIBOAK

Gaur egun dugun bizimoduaren eta nekazaritzako elikagaien sistemaren alternatiba diren proposamenak eta aukerak aztertzen ditugu. Elikadura Subiranotasuna proposatzen dugu alternatiba bideragarria eta jasangarria bezalakoa, gizar eta ekologiko ikuspegitik, baita produkzioaren moldaera eta kontsumoaren murriztapena ere. Kuban subiranotasuna lagunduz.

Bai **HEZKUNTZA**ren bidez Euskal Herrian, bai **LANKIDETZA**ren bidez, sozietate zibila subjektu politiko aktibo bihurtzeko lan egiten dugu. Gure gizarate ereduak hobeto bizitzea bermatzen digun bat bihurtzea lortzeko jabeakuntza, burujabetza eta norberako autonomiatik abiatzen gara, nahiz eta, agian, gutxiagorekin bizi behar izango dugun. Horretarako, hemen eta han egiten dugun sare-lana eta daukagun koordinazioa, ikaskuntza eta parte-hartzearen aldeko apustua da, mugimendu feminista, indigena, nekazarieta ekologistari lehentasuna ematen.


www.mugarikgabe.org



AURKIBIDEA



| | |
|----------------------------|----|
| SARRERA | 4 |
| ELKARRIZKETAK | 7 |
| JUNE FERNÁNDEZ | 8 |
| ARANCHA GARCÍA | 10 |
| MATUSIA LÓPEZ CRUZ | 12 |
| LEIRE LASA | 15 |
| MARTA MATO | 18 |
| COLECTIVO ANSUR | 22 |
| BASHE NUHEM | 25 |
| OHARRAK | 28 |
| LAGUNTZA EMAN | 30 |



SARRERA

Mugarik Gabetik Emakumeen Giza Eskubideen defendatzaileek egiten duten lana gogoratu eta ikusarazi nahi dugu. Kolektibo feminista eta sozial ezberdinetako emakumeak, egunez egun haientzako eta gainontzeko herritarrentzat jendarte justuago eta parekideago lortzeko borrokatzen dutenak.

Guztiek gure eskubideak izateko aukera izan dezagun egunez egun borroka egiten duten emakumeak, inposatu zaizkigun genero aginduak kolokan jartzen dituztenak, emakumeak gutxiesten dituzten gobernu ezberdinetako lege eta ekintzak salatzen dituzten kolektiboak; labur esanda, kasu askotan emakumeen eskubideen urraketen erantzuleak direla onartzen duten gobernuen aurrean borroka egiten dutenak.

Emakumeen giza eskubideen urraketak modu ezberdinetan agertu eta islatzen badira ere, magnitude ezberdinarekin, kausa komunak identifikatzen ditugu;

Ideologia patriarkal eta heteroarruak: egitura eta instituzio sozialak baldintzatzen dituztenak, kultura eta erlijio sinesmen eta arauak, legeak, politika eta diskurtso publikoak; diskriminazioaren iraunkortasuna eta genero desberdintasuna emaitzatzat dutenak.

Erlijoen fundamentalismoa eta kontserbadorekeri orokortua: haien ideologia eta ordena moralak inposatu nahi dutenak, eskubide sexualeri eta eskubide erreproduktiboeri eta familia zein emakume eredu bati lotutako lege murriztaileak sustatuz. Ez dute bakarrik herrialde erlijiosoetako emakumeentzako mehatxua suposatzen, estatu laikoetan ere bai, zeintzuetan aktore fundamentalistek boterea eta zilegitasuna duten.

Kapitalismo neoliberalak, pertsonak eta natura merkantilizatzen dituena eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen aurrean; eskubide zibil eta politikoak geroz eta gehiago mugatuz. Makinaria honek funtziona dezan emakumeak erreproduktio roletara betikotu behar ditu, eta pasibo izatera, jakina.

Krisi demokratikoak eta kontserbadorekeri politikoak, irabaziak izateko helburuarekin sektore pribatuaren babesa indartzen duena, aktore ekonomikoek kontu ematea exijitzeko gai ez diren demokraziak, indarkeria estrukturala eta instituzionala legitimatuz, zigor gabe ekiten dutenak. Estatuek ez dute soi-

lik huts egiteagatik porrot egiten, Giza Eskubideen bortxaketak babestu eta prebenitzeko zereginetan; baizik eta askotan, ez dute ezta defentsa lege bilakatzeko borrokatzen zigor gabetasuna saihesteko. Egoera hauek are gordinagoak bilakatzeko dira erregimen autoritarioen testuinguruetan.

Munduko leku ezberdinetako **militarizazio eta gatazka egoerak**, fundamentalismoek sustatzen dutena, ideologiak eta praktika patriarkalak zein heteroarruak lekua badute erroak trinkotzen dituenak, maskulinitate biolentzaren presioak areagotuz, eta emakumeen mendekotasuna handituz, elkar indartzen baitira, eta kasu askotan, biolentzia sexualetan adierazten da.

Ideologia patriarkalak, heteroarruak, neoliberalak, inperialistak, fundamentalistak eta militarizatuak aldatu behar dira, errotuta daudenak, ez soilik egitura sozialetan, jendartearen balore eta bisioetan ere; hau da, pertsonak, herritarrek, ikusi, ulertu eta egiteko dituzten moduetan. Heterossexual maskulinoen dominazioa inposatzen duen sistema bat da, emakumeoi eskubideak askatasunez baliatzea ukatzen diguna.

Testuinguru honen aurrean, mugimendu feministak zutik daude, borroka darrai. Leku ezberdinetako emakumeok, modu ezberdinetan bada ere, diskriminazio eta berdintasun ezagatik zapalkuntzei aurre egiten diogu. Elkar entzun eta babestu behar dugu, indarrak batu balioa erakutsarazi gure eskubideez baliatzeko. Emakumeen Giza Eskubideen defentsa, gaur egun ere ezinbestekoa izaten jarraitzen duen borroka bat da.

Emakumeen Giza Eskubideen defendatzaileak baliogabetuak dira, mehatxatuak, erasotuak, erailak, Gizak Eskubideak defendatzeagatik eta emakumeak izateagatik. Defendatzaileek kolokan jartzen dituzte emakumeak nola jokatu behar dugunaren inguruko agindu sozialak. Haatik, patriarkatua eta heteroarruak dira defendatzaileak aurre egiten dieten ideologia zentralak, direnak izateagatik eta egiten dutena egiteagatik. Defendatzaileekiko mehatxuak eremu pribatutik eremu publikora pasatzera arriskatzen direlako ematen dira, aldarrikapenaren eta borrokarren subjektu aktibo izateagatik, babestu beharreko objektu pasiboaren ordez, emakume eta gizonezkoen arteko bestelako harremanen alde borrokatzen dutelako. Emakumeak etxeko zaintzaren

esferan baztertzen jarraitzen duen mundu batean, ama eta emazte gisa, ekintza politikoari egiten duten horiek (instituzioei eta gobernuai aurre egiten dietenak) jazarriak, irainduak, erasotuak eta eraillak dira.

Testuinguru horretan, emakumeenganako zapalkuntza sistematiko eta estrukturalan, kolektibo feminista eta emakumeekiko errepresioan, kritikatu eta agindu sozialei aurre egiteagatik, defendatzaileek, ezarritako arauen kontra borrokatzen dute, emakumeak aitortuak izan gaitezen eskubideen subjektu gisa.

Ezinbestekoa da Giza Eskubideak ikuspegi feminista batetik definitzea eta praktikan jartzea, eta jakina, eskubide horiek gizaki denentzako izatea, emakumeontzako ere. Berdintasuna defendatuko duen ikuspuntu bat, Emakumeen Giza Eskubideen indarkeria sistemiko eta sistematikoarekin bukatzeko, bertan txertatuz, nola ez, indarkeria matxistak ere.

Indarkeriatik aske libreki bizitzeko eskubidea eta eskubideen berdintasunaren aitortza formala, gaur egun ez da inondik inora nahikoa emakumeen aldetik eskubide guztien gozamen eraginkorra bermatzeko. Rurrerapauso juridikoak eman badira ere, (gutxienez hainbat lekutan), zauri erraldoi bat dago Emakumeen Giza Eskubideen aitormen formalaren eta gozatzeko aukeren artean. Giza Eskubideen markoak Estatuak indarkeria hauen aurrean esku hartzera behartzen ditu, baina ez du ezertarako balio Estatuak Nazioarteko Hitzarmen ezberdinak berronesteak gero legeak ez baldin badituzte betetzen, ez dira planak ezta garatzeko behar diren aurrekontuak egiten.

Diskurtso politikoetan Giza Eskubideen defentsa banderapean jartzen dela egia bada ere, eta kasu askotan indarkeria matxisten erauzteka ere, nagusiki data hain seinalatuetan, errealtatea mundu osoan gizon zuriei, klase erdi-altukoiei, pribilegioak eta gorentasuna ematen dieten ideologiek jarraitzen dutela agintzen da; emakumeak mendeko bihurtuz.

Indarkeria matxistak Giza Eskubideen urraketen marko batean birdefinitzea beharrezko pausoa da biolentzia matxista guztiei aurre egiteko kontzientzia soziala lortzeko, eta hori, ezinbestez, Emakumeen Giza Eskubideen Defentsaren inguruko pedagogia batetik pasatzen da.

Analisi hau abiapuntu harturik, "Con las defensoras: emakumeon eskubideen alde" aurrera eramatea jarri genuen helburu. Izenburua ez da ustekabea, lehenik eta behin, mundu osoan zehar egoera ezberdinei aurre egiten ari diren ekintzaile feminista guztiei eskerrak eman eta gure babes osoa helarazi nahi baitiegu, ESKERRIK ASKO guztiei.

Bigarrenik, guztion eskubideak aldarrikatu eta borrokatzeko; ez dugu soilik entzunak izateko eskubidea, entzunak izatea exijitzen dugu, eskubideak aldarrikatzen ditugu, ez ditugu mesedeak eskatzen, perspektiba aldaketa erradikala exijitzen dugu, jendarte justuagoen eta parekideagoen eraikuntzan berdintasunez parte hartzen dugun subjektu aktiboak gara; ez gara fabore txikiak egiten zaizkien onuradun pasiboak.

Prozesu honetan, genero alorrean defendatzaileek aurre egin behar dieten urraketa espezifikoen ondorioak aztertu ditugu, urraketan patroik komunak identifikatzeko, eta ez aztertze gertaera isolatu gisa. Askotan, defendatzaileei egindako mehatxuak zerbait normala direla onartzen dugu, emakumeen rol eta arduren inguruan errota dauden ustezko patriarkatuari men eginez, mehatxuak aztertze moduaren atzean daudenak.

Era berean, nazioarteko zein tokiko babes mekanismoak aztertu ditugu, genero ikuspuntu batetik. Babes mekanismoak ideologia eta diskurtso dominantean markoaren baitan ezarri dira, analisi feminista kontuan hartzen ez duten horietan. Mekanismoak berrikusi eta birkontzeptualizatu behar ditugu ikuspegi feminista batetik.

Halaber, ikasketa espazioak sortu ditugu kolektibo ezberdinen artean, eta eragiteko estrategiak elkarbanatu ditugu borrokak indartu eta zabaltzeko. Horretarako, hausnarketa eta ikasketa bateratuak izateko jarraibideak eman dizkiguten espazioak eskura jarri ditugu. Borroka honetan egunez egun lanean diharduten emakume batzuen iritziak, eza-gutzak eta esperientziak jaso ditugu.

Azkenik, gure eskubideak guztiok baliatzeko bizi, borrokatu eta sinesten duten emakume guztiak eskertu nahiko genituzke berriro.

Mugarik Gabe





ELKARRIZKETAK

JUNE FERNÁNDEZ | ARANCHA GARCÍA | MARUSIA LÓPEZ CRUZ
LEIRE LASA | MARTA MATO | COLECTIVO ANSUR | BASHE NUHEM

KAZETARITZA FEMINISTA PATRIARKATUAREN KONTRABOTERE GISA

► JUNE FERNÁNDEZ

Kazetari eta feminista, Pikara Magazine aldizkaria koordinatzen du 2010etik. Eraldaketa sozialan kazetaritzak joka dezaken paperean sinesten du, baita genero ikuspegian ere, kazetaritza praktika on baterako analisi erreminta gisa. Bere ekintzaile feministaren alderditik praktika ziberfeministetan nolabaiteko hedonismoa kritikatzeko du eta kalean zein sarea, mundu guztian, denentzako Giza Eskubideen defentsarako internazionalismora joko duen kazetaritza defendatu.



🕒 **Komunikabideak zein paper jokatzeko ari dira Giza Eskubideen defentsan?**

Bi hedabide mota bereiziko nituzke kazetaritzaren eta Giza Eskubideen inguruan hitz egiteko. Batetik, komunikazio talde handiak, interes enpresarial batzuei erantzuten dietenak eta botereari begira egon ohi direnak. PRISA edo Vocento bezalako taldeak, Giza Eskubideen aurrean beste balore batzuk lehenesten dituztenak. Bestetik, goreneko une batean dagoela uste dut kazetaritza mota bat, La Marea, Diagonal, La Directa, Periodismo Humano, eldiario.es edo Pikara bezalako hedabideetan gorpuztua, zeinetan ideien zati bat komunikabideek Giza Eskubideen sustatzaile gisa duten funtzioa ulertzetik igarotzen den. Komunikabide hauetan eskubide hauen urraketa salatzen den espazioa egoten da, eta ez neutraltasun faltsu batetik, baizik eta kazetaritzaren funtzio bat dela ulertuz: botereari aurre

egitea. Ez bakarrik Gobernuen boterea, botere patriarkala edo arrazista ere bai, adibidez.

🕒 **Zer ekarpen egiten dio ikuspegi feministak Giza Eskubideak sustatzea bilatzen duen kazetaritza honi?**

Lehenik eta behin, joera androzentrikoa zuzentzen du, medioetan presente egoten jarraitzen duena. Errefuxiatuta dauden pertsonen krisian pentsa dezagun, zeinetan ohikoena gizonezkoak ageri diren irudi piezak topatzea den, ibilbide eta egoerek haiei soilik egiten dietelarik erreferentzia... Emakumeak agertzen badira biktimen estereotipoari erantzuteko da, edo amatasunari. Kazetaritza feministak, kasu honetan, emakumeek ere errefuxiatu gisa ibilbideak dituztela aitortzen du, migrazio eta atzerpea bilatzeko prozesu hauek nola eragiten dieten

pentsatzen du, eta ez bakarrik emakumeei eragiten dieten baldintzen inguruan hitz egiteko, biolentzia sexuala edo eskubide sexual edo erreproduktiboak izan daitezkeen bezala, baizik eta maskulinitatearean aginduak ihes egitearekin nola harremantzen diren azaltzeko. Pikaran, esaterako, gaia genero perspektibarekin landu genuen, milaka eta milaka gizon Siriatic alde egiten badaude gerratik ihes egiten ari direla ere kontatuz, eta hortaz, gizonek gerra egin behar dutela dioen aginte patriarkaletik. Kazetaritza feministak kalitate gehiago eta analisian sakontasun handiagoa ematen du, generoak hainbeste markatzen duen jendartea batean, gizon edo emakume jaiotzeak bizitza gidatuko duten baloreak zehazten dituen, iruditzen zaigu miopiaren sintoma dela generoak errealitate sozialetan duen eragina ez kontuan hartzea.

🕒 **Berdina al da kazetaritza feminista eta genero perspektiba duen kazetaritza?**

Kazetaritza feminista harago doa. Ez gara generoaren erabilera analisirako erreminta izatean soilik geratzen. Lehen Giza Eskubideen sustapenean kazetaritzak ezinbesteko papera duela esaten bagenuen, urraketa hauen bozgorailu bezala, kazetaritza feminista patriarkatuaren kontrabotere moduan aurkezten da. Ez bakarrik botere faktikoen aurrean, patriarkatuak egunerokotuen dituen adierazpideetan ere bai.

🕒 **Eta ekintzaile ziberfeminista bezala, zein funtzio uste duzu ari dela betetzen feminismoa Interneten Giza Eskubideen defentsan?**

Ez dakit oso injustua izango ez ote naizen, baina ziberfeminismoa gure testuinguruko emakumeen agendarako gehiago aprobetxatzen ari denaren sentsazioa dut: klase ertaineko emakume zurien esperientziatik mikromatxismoen inguruan aritze-

ko, kaleko jazarpenen inguruan hitz egiteko... Baina ez hainbeste emakume lodiek bizi duten jazarpenaz jarduteko, bollarak eta trans-ak sufritzen duguna, baizik eta arauen barneko gorputz handiagoo edo txikiagoo duten emakumeen inguruan aritzeko. Aldiz, Ertamerikako Giza Eskubideen defendatzaileek aipatzen dituzten alertak gure testuinguruan mugiaraztea asko kostatzen zaigu. Uste dut agenda handitu beharko genukeela ziberfeministok Giza Eskubideen defentsak ere beste maila batean eragiten digula jabetzeko.

🕒 **Ziberfeminismoak hedonismorako joera du?**

Bitxia da, zeren, duela urte batzuk, ziberfeminismoaren inguruko ponentzia bat egin nuen, eta emakume batek kritika hori egin zuen bertan, xelebre. Momentu horretan erasotua bezala sentitu nintzen, baina orain uste dut ziberfeminismoaren kasuan, eta orokorrean sare sozialen erabileran, hedonismorako joera badagoela, bai. Interneten arreta deitzen diguna ez da eduki sakonago edo umilagariago batek izatea, argazki politagoa edo ikusteko bideoa errazagoa duena baizik. Euskal Herriko feminismoan nazioarterako joera badago, bai. M8ko komunikatua, adibidez, Berta Cáceresi aipamena egin zitzaion, errefuxiatuen inguruan hitz egin zen, kurduei buruz... Diskurtsoan nik uste dut horretarako joera badugula, baina gero, eguneroko eztabaidetan konplikatuagoa da.

Niri zalantzak sortzen zaizkit: Gure dinamiketan emakume migratzaileak txertatzen ari al gara? Gonbidatuak sentitzen diren espazioak sortzen al ditugu? Haien eguneroko errealitateek gure agendetan espazioa dutela sentitzen al dute? Nik uste dut hor badela feminista migratzaileen eta Euskal Herrikoen arteko arraila bat, eta ez dakit oso ondo, egia esan, nola konpon dezakegun.

EMAKUMEENGAN GATAZKAK NOLAKO ERAGINA IZAN DUEN EZ DA BAKE PROZESU BATEAN ERE EZ AITORTU

▶ ARANCHA GARCÍA

Emakumeen Giza Eskubideen defentsaren aldeko justizia transnasionalean adituak, gatazka armatuek modu espezifikoetan emakumeengan duten eragina argitara ateratzeko egiten du lan, eta emakumeek sufrizten dituzten biolentzia hauek bake testuinguruetan ere nola areagotzen diren ikertzen du.



Gatazka armatuetan, gizonetzkoek gerlari ideal hori irudikatzen jarraitzen dute, borrokatu eta komunitatea defendatzen duena, "lehenetasuna" guztien segurtasuna eta biziraupena den testuinguruetan. "Honek elkarrizketarako espazioen itxiera probokatzen du, eta rol tradizionalak kolokan ezin jartzea, geroz eta zurrunagoak bilakatuz", baieztatu du Arancha García. "Gatazka egoeretan, -jarraitzen du- biolentzia esplizitu eta inplizituak areagotu egiten dira, are gehiago, genero indarkeria arautzen eta zigortzen zituzten mekanismoak desagertzen dira". Gainera, ohikoa da emakumeek rol berriak beregain hartu behar izatea, tradizionalki gizonen esku zeudenak, jendartearen aldaketa estrukturalak suposatuz, gatazka egoeretan ematen ari direnak, aldaketa hauen inguruan aritzeko espaziorik egon gabe.

🕒 Egoera hauen aurrean, zer ekarpen egin lezake justizia feminista batek?

Justizia prozesu "tradizionaletan" joera komuna emakumeak biktimak izatea da, errealitatea ezkutatuz, nahiz eta erretorika legalean berdintasuna defendatzen duten instantziak egon. Justizia feministak emakumeak Emakumeen Auzitegia bezalako erreminta berrien (Women'sCourts) subjektu nagusi izatea proposatzen du. Sarajevon, 2015eko maiatzaren 9an ospatutako Emakumeen Auzitegiaren aurretiazko erabaki eta gomendioetan, emakumeak "erailketa eta

biolentziaren lekuko direla jasotzen da. Haien ahots eta esperientziak ezin dira bazter utziak izan denbora gehiagoz". Auzitegi hauetan emakumeek altu hitz egiten dute, haien izen propioekin, eta haien erara, etenaldirik gabe entzunak direlarik instituzio formalak gelditzeko gai izan ez diren erailketak kontatzen dituztenean, eta kasu askotan aitortu ere egiten ez dituztenean: desagerpenak, bazterketa praktikak, familietako gizonen erreklutatzeak, hezkuntzarako sarbidea mugatzea edo bestelako biolentzia ekonomiko eta sozialak; bereizketa areagotzen dutenak. Bada haien erresistentzia moduak konpartitzeko espazioa, entzuten dituzten pertsonengandik babestuak sentitzekoak. Espazio kolektiboak dira, egia, elkartasuna eta babesa bilatzen dutenak.

🕒 Zer ekarpen egin liezaioke ikuspegi feminis- tak gatazka armatuetako biktimen ordain prozesuari?

Emakumeen aldarrikapenak entzutea, normalean justizia ekonomiko eta sozialari lotutako eskubi-

deen bermearen baitan egoten direnak; lan eta zerbitzu publikoetara sarbide berbera, militarismoaren amaiera; zigorgabetasuna etetea eta erasotzaile zuzenen zein ezer egin gabe geratu zirenen erantzukizuna aitortzea, mota guztietako gorroto delituak zigortuz. Utopikoa eta handinahakeria irudika lezake, baina hori da helmuga. Horra goaz. Hedabideetan, hezkuntza baliabideetan (curriculumetan, testu liburuetan, liburutegietan, Historian) garrantzitsua da ikusgarritasuna ematea ere, eta bizirik atera diren emakume erresistenteak monumentuekin, ekitaldi lokalekin zein nazioartekoekin aitortu eta omentzea.

Gaur arte, ez da bake prozesu batean ere, ezta egun garatzen ari direnetan ere, emakumeengan gatazkek izan duten eraginaren benetako aitortza eraginkorrik egon. Emakumeen Auzitegiak, zabalpen ekintza eta argitalpenak, defendatzaileen topaketak edo hezkuntza tailerrak dira gaur erabiltzen diren erremintetako batzuk oraindik zabaltzeke da-
goen bidean, eskubideen berdintasuna emakume guztientzako benetan eraginkorra izan dadin.



ERREALITATEAK GAINDITU EGITEN GAITU DENBORA GUZTIAN

► MARUSIA LÓPEZ CRUZ

Ertamerikako Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Iniziatibako kideetako bat da (IM-Defensoras). 2012 eta 2014 artean 1.688 eraso kontabilizatu ziren El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon. Eusteko elkarren arteko babes sareak sortu dituzte, autozainketa bezalako kontzeptuak sustatzen dituztenak, feminista gakoan, eustetik harago, defendatzen duten munduarekin kontso-nantzian bizitzen saiatzen laguntzen dietelarik.



🕒 Zer esan nahi du emakumeen Giza Eskubi- deen defendatzailea izateak?

Emakume ekintzaileen babesaz kezkatzen hasi ginenean eztabaida gune ugari izan genituen: "Defendatzaile deitu nahi dugu?", galdetzen genion gure buruari. Batzuentzako ez zen ideia ona, gure feminista, ekintzaile sindikalista zein lider indigenaren identitatea... kentzea bezala zelako; baina kontzeptua nondik zetorren pixka bat gehiago aztertzen hasi ginenean defendatzaile deitzea Giza Eskubideen alde egiten genuen lana aitortzea zela ohartu ginen, gure baitako eskubide bat, eta jen-

dartearengandik eta Gobernuengandik babestua egon behar zuela.

🕒 Noiztik erabiltzen da kontzeptu hau?

Protesta sozialarekiko kriminalizazioa eta murrizketak ez dira zerbait berria, historian zehar bizi izan den zerbait da. Giza Eskubideen erakunde asko, erakunde feminista ugari barne, NBK Giza Eskubideen defentsa eta promozioa eskubide gisa aitortzeko hasi ziren lanean, Estatuari lan hau babes-tea eska ziezaieten, eta Giza Eskubideen alde lan egiten duten pertsona guztiak bakeari, berdintasunari

eta justiziari egiten dioten ekarpena onar zezan. Giza Eskubideen defendatzaileen inguruko Adierazpenetik aurrera hasi ginen asko horrela deitzen. Gure esperientziaren baitan, hau zioten lagunekin egin genuen topo: "Inoiz ez nuen pentsatuko ni neu izango nintzenik nire defendatzaile". Ahalduz duen kontzeptu bat da, emakumeek aldaketa sozialaren alde egiten dugun lana Giza Eskubideen aldekoa dela aitortzea onartzen diguna.

🕒 **Hitz egiguzu Giza Eskubideen defendatzaileek, bereziki, bizi dituzten erasoak erregistratzeko zuen inizatibari buruz**

Ertamerikako Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Iniziatiba (IM-Defensoras) abiatzean egindako lehen gauzetako bat defendatzaileen inguruan zegoen dokumentazioa ikustea izan zen. Gure sorpresa, oso gutxi zegoela izan zen. Gure herrialdean apenas zegoen informaziorik, eta batzuetan, galdutako kapituluren batekin egiten zenuen topo, hau zioena: "Esaten dugun guzti hori defendatzaileei ere gertatzen zaie eta haien espezifikotasuna begiratu behar da", baina ez zen beste ezer aipatzen.

Hortik, beste erakunde batzuk egiten ari ziren erasoak erregistratzeko sistema eraikitzeke lanei heldu genien, nola erregistratzen ziren jakiteko, zein adierazlerekin, mekanismorekin eta metodologiarekin. Cero, gure erregistro fitxa egin genuen, emakume defendatzaileek espazio pribatueta pairatzen dituzten erasoengatik inguruko informazioa ere biltzeko, beste informe batzuetan aitortzen ez zen zerbait zelako. Gure prozedura ez da mundu guztiari bidaltzen zaion inkesta batean oinarritzen bi arrazoigatik: horrela zailagoa delako informazioaren benetakotasuna egiaztatzea, eta ez delako erraza, defendatzaile batek biktima bihurtzen duen

biolentzia aitortzea, orokorrean. Are gutxiago indarkeria hauek eremu pribatu batetik edo bere erakundetik badatoz.

Ez da erraza Giza Eskubideen emakume defendatzaileak genero indarkeria aitortzea. Emakume guztiei bezala pasatzen zaigu. Nahiz eta gure bizitzak patriarkatuarekin, genero estereotipoekin... haustura asko izan, kosta egiten zaigu gure familian zein gure inguru hurbilean biolentziaren biktima izan gaitzkeela onartzea. Generoaren kontzientzia prozesu bat da, betaurreko biolentzia jarri eta esatekoa: "Beno, ba bai, defendatzailea naiz, oso gogorra naiz, gauza mordoaren aurrean matxinatu naiz, baina nire etxean, nire erakundeetan, beste emakume guztiak bezala erasotzen naute eta horrek ez nau defendatzaileago edo gutxiago egiten, diskriminazioak emakume guztiei bezala eragiten didala espresatzen du bakarrik".

🕒 **Eta zeintzuk dira erasotzaileak?**

Nahiz eta burutzailerak nagusiak Estatuko agenteak direnarekin egin dugun topo, autoritateak, dokumentatzen ditugun erasoengatik %5 gertuko beste aktoreengandik etortzen baita. Gure laguntza esperientziaren arabera, badakigu indarkeria hauek askotan askoz suntsitzaileagoak direla, eta desmobilizatzeke efektu gehiago dutela estatuetako aktoreengandik eratorriak direnak baino. Hau dokumentazio prozesuak egiten dituzten kideekin batzuetan izaten dugun oso ezbairik gogorra da, edo beste erakunde batzuekin, hau esaten baitigute: "Tira, ezin duzu konparatu inteligentziak egiten duena edo Estatu baten kriminalizazio sistema, erakunde baten barruan gertatzen denarekin". Hala da. Faktore ezberdinei erantzuten die, eta botere ezberdinak dituzte, baina defendatzaile baten bizitzaren kasuan egia dena da, beste eraso mota batzuk baino indartsuagoa dela askotan erasotzen edo

mehatxatzen duena bere kidea edo bikotea izatea, semeak mantendu nahi baditu defendatzaile izaten jarraitu ez dezan, adibidez. Heroikeriaren logika guzti hau daukagu, baina indarkeria eremu pribatura heltzen denean pila bat desaktibatzen gaitu.

🕒 Zein babes estrategia ari dira martxan jartzen?

Garrantzitsua da errealitateak denbora guztian gainditzen gaituela onartzea. Gure indarrak, gaitasunak, jakintzak, uneoro errealitatearengandik erronkatuak dira. Nik gaur egun, oraindik ere, erantzun guztiak aurkitu ez ditugula sentitzen dut, eta garrantzitsua da hori esatea. Berta bezalako kide bat hil badute, zeinarekin guk eta beste hainbeste erakundek lan egin duten, existitzen diren babes neurri posibilitate guztiak... badira gainditzen gaituzten gauzak, falta zaizkigunak, eta pentsatu beharrekoak.

Gure ikuspegitik, lan hau beste erakunde batzuek babeserako, segurtasunerako gauzak egiten zituztela jakinda abiatu genuen, baina garai hartan ez zegoen emakume defendatzaileen arteko babes sarerik, orain gehiago daude, autokontzientzia taldeen logika feministatik sortuak. Hau da, gure artean zaintzeko espazioak, pertsonalki eta politikoki eza-gutzekoak; babes sare eta erantzun azkar gisa balio izateko, batzuetan hurbilekoen dugun eremuetan ez duguna. Gizonezko defendatzaile bat mehatxatua denean, orokorrean, akaso askatasun sexualaren aldeko mugimenduan lan egiten duten kideak salbu, babesa izaten dute: familia bat, erakundea...

🕒 Nola itzuli liteke autozainketaren ideia hau?

Pertsona bat erasotua denean erantzun mekanismo azkar minimo bat dugu; sare bakoitzak kasuei arreta jartzeko talde txiki bat du, baita emakume defendatzaileen autozainketa eta arreta psikosozialari

heltzen dion beste talde bat ere. Nire herrialdean oso gaizki ikusia dagoen zerbait da, gu, emakume onak izateaz gain heroi nekazekin izan behar baikara, eta dena eman behar baitugu kausaren alde... Pila bat kostatzen zaigu kongruenteak izatea eta bat egiten duten mugimenduak izatea borrokatzen ari garen eskubideak bizitzeko. Hiltzea, mehatxatzea, espeteratzea... ez da bereziki mugimendua indartzen duen zerbait, ahultzen duena baizik.

Autozainketaren dimentsioa asko lantzen dugu alderdi politikotik gure mugimenduak birpentsatuz. Erantzun azkarrerako fondo txiki bat dugu, batzuetan beste fondo batzuek babesten ez dituzten kasuetarako dena: biolentzia egoerak; kontu judizialak; etxea mantentzeko senarrak emakume defendatzaileari kendu nahi badio; edo haginetao tratamenduetarako. Eremu komunitarioan hori oso zauri indartsua izan daiteke. Badira elikadura arazoengatik haien hortzak galdu dituzten emakume liderak, eta oso lider indartsuak dira, baina hortzik ez izanagatik gutxiago baloratuak sentitzen dira. Batzuetan, haginetao tratamendu batek eragin politikoa du. Kasu hauek batzuetan ez dira ulerterrazak beste babes fondo batzuentzako. Guk duguna oso gutxi da, baina dugun apurrarekin beste behar batzuetara iristen saiatzen gara. Orainsu, COPINheko kide batzuk Espainiar estatuan egon dira eta Madrilen ikusi ginen, ba, adibidez, egin genuen gauzetako bat bidaiatzeko kit txiki bat eskaintzea izan zen. Ia 20 egun zeramatzen oso nekazak diren jardunaldi batzuetan eta zekarten karga emozional guztiarekin... ba gutxienez labanda olio, txokolate eta oliba olioazko jaboitxo kaxa batekin... Finean, tontakeriak dirudite, baina gure ongizatea ere mugimenduarentzako garrantzitsua dela adierazteko kontutxoak dira. Mexikoko lagun batek hala zioen: "Ez gara erabili eta botatzekoak". Guk balio dugu, nahi duguna pertsona guztiak balio izatea delako.



EMAKUMEEK BETI IZATEN DITUZTE OZTOPO GEHIAGO NAZIOARTEKO BABESA JASO AHAL IZATEKO

► LEIRE LASA

Hamar urte daramatza CEAR Euskadin lanean (Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordea). Erakundeak Giza Eskubideen Defendatzaileen Aldi Baterako euskal Babes Programa kudeatzen du, jasotzen dituen pertsonen haien jatorrizko lurraldera arrisku gutxiagorekin itzultzea erraztea bilatzen duen nazioarteko elkartasun sarea. "Ez da %100 hutsik gabea", aitortzen du Lasak. Sortu zenetik, genero perspektibaren aplikazioa izan da haien erronka nagusietako bat, aurtengo programan adinez txikiko baten ardurarekin Euskadira iritsi den lehendabiziko emakumea babestearekin adieraz litekeena.



🕒 **Nondik sortzen da Giza Eskubideen Defendatzaileentzako Aldi Baterako euskal Babes Programa?**

Aurreko ekimen batetik sortua da...

🕒 **Zeinetik?**

2009an, Euskal Herrian, Colectiva Colombia sortu zen, Kolonbiarekiko elkartasun sare bat. CEARrez gain, Paz con Dignidad, Mugarik Gabe, Mundu Bat, Batzuek, Paz con Solidaridad eta La Posada de los Abrazoseko lagunak zeuden. Kolonbiarekin elkartasun sare bat da. Ezarri genuen helburuetako bat, Espainiar estatuko bestelako esperientzia batzuei begira, defendatzaileak babesteko euskal programa bat bultzatu eta ezartzea izan zen, gure ezaugarri propioekin.

🕒 **Zertan oinarritzen da programa?**

Eusko Jaurlaritzako Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritza lidergo duen proiektu bat da, gu programa hori kudeatzen dutenak gara. CEAR Euskadik mundo osoko Giza Eskubideen defendatzaileen egoera zein zen ikusteko grina zuen, baina bereziki Kolonbiakoa, CEARrek historikoki herrialde honekin lotura politiko asko izan duen erakunde bat delako,

eta errefuxiatutako lagun kolonbiar asko izan ditugulako. Gainera, nazioarteko babesak jasotzeko pertsona errefuxiatuak izaten ari ziren zailtasun geroz eta handiagoa ikusten genuen. Espainiar estatua prozedurari heltzea geroz eta zailago den lurralde bat bezala eratzten da, geroz eta oztopo gehiago inposatzen dira, eta aldi baterako babes programak babes politikorako erreminta interesgarria izan zitezkeela ikusten genuen. Izan ere, batetik, behartutako desplazamendua saihesten dute, jendeak betirako alde egin behar izatea, ezin itzultzea; eta, bestetik, jatorrian Giza Eskubideen defentsa prozesuak eusten lagutzen du. Disuasiozko efektua du.

🕒 **Disuasiozkoa?**

Arrisku egoeran dauden pertsona defendatzaileekin sei hilabetetan zehar egiten den harrera lanaren bitartez, helburua, nolabait esateko, instituzioekin bilerak eginez nazioarteko babes sarea sendotu edo hedatzea da, hemengo mugimenduekin harremana izatea... Pertsona horiei haien herrialdeetan zerbait gertatu ahal izatearen koste politikoa areagotzeko. Nazioarteko begirada horrek eremu ezberdinetatik nolabaiteko segurtasun kobertura ematen dio pertsona eta erakunde horri. Programa pertsona batentzako da, baina osagai kolektiboak du.

🕒 **Zenbat pertsona biltzen dira programan urtero?**

Hiru.

🕒 **Zeintzuk dira aplikatzen diren irizpideak?**

Printzipioz, guk, Giza Eskubideen defendatzaileen pertsonen definizio zabal bat dugu abiapuntu. Badira baldintza batzuk: pertsona elkarteko kidea izatea, erakunde edo mugimenduren baten parte izatea kolektiboagoa den osagaia izan dezan; Euskadiko erakunderen batekin harremanen bat izatea, hemen pertsona hori defendatuko lukeen erakundea izango litzatekeena, guretzako funtsezkoa baita jada elkartasun sare bat sortua egotea intzidentzia politikoa egiterako orduan babes horiek pilatzen saiatzeko. Gero, guretzako ere lehentasuna da emakume defendatzaileak egotea programan, gaur egun defendatzaileen egoeraren baitan, lu-

rraldearen defentsara dedikatzen diren pertsonen artean emakume ekintzaile femiinstak direlako arrisku gehien pairatzen dutenak. Gainera, apustu feminista bat da, emakumeek beti oztopo gehiago izaten dituztelako mota honetako babesak jasotzerako orduan. Aurten programan parte hartuko duten hiru pertsonak, urtearen erdialdean iristen hasiko direnak, emakumeak izango dira. Bat adinez txikiko bat kargu duela etorriko da, hori zen genuen beste eronketako bat. Aurrez seme-alaben kargu diren gizonetako ere parte hartua zuten programan, baina hori askoz errazagoa da han beti dutelako zainketaz arduratuko den norbait. Emakumeen kasua askoz konplexuagoa da eta lehendabiziko aldia da programan adinez txikiko baten ardura duen emakume batek parte hartuko duena.

🕒 **Nola planteatzen duzue lehendabiziko esperientzia hau?**

Kontuan hartu behar da seme edo alaba horri mehatxuen biktimia izatea egokitu ahal izan zaio. Adinez txikiko horren analisi zehatz bat egin behar da, eta programak itzulera inhibitzeko duen gaitasuna ikusi seme-alabak bere gain dituen emakumeen kasuan.

🕒 **Nolakoak dira hemengo egonaldiak?**

Laguntza psikosoziala ematen duen prozesu bat egiten da. Askoz lehenago egiten dugu lan, hemen dauden bitartean, eta ondoren. Autozaintzaren aldeko oso apustu sendoa dugu ere bai. Askotan, arriskua iraunkorra den egoeretan iristen diren pertsonak, laguntza terapeutiko pertsonalizatua edo laguntza psikosozial kolektiboagoa mantentzeko espaziorik ez izatea ekartzen du. Ezin dute bakoitzak zer behar duen bezalako kontu propioetan pentsatu, ezin dute gelditzean pentsatu, arnasa hartzean.... Hori ere onartzen du programak.

🕒 **Egitasmoa bultzatu zenetik, jasotako pertsonen profil komun bat ezar liteke?**

Nagusiki Kolonbiako pertsonak etorri dira, baina ez dago profil bakar zehatzik. Erakunde indigenetako pertsonak izan ditugu, landa komunitateak laguntzen zituztenak, ikasle mugimenduetakoak, herrietakoak... Guatemalatik etorritako pertsona

bat hartu dugu, LGTBI kolektiboko ekintzailea; edo esterilizatutako emakumeen egia, justizia eta aitortzaren alde lan egiten duen Ekuadorreko base-rritar bat.

🕒 **Nolakoa izan da haien herrialderako itzulerak?**

Programaren eragina ikusteko ebaluazioak egiten saiatzen gara, babesteko terminoetan eraginkorra den ikusteko. Parte hartu duten pertsonen aldetik oso ondo baloratua izan da, baita haien erakunde-egandik ere, behin itzulita bestelako kontaktu eta interlokuzio mota batzuk dituztelako haien herrialdeko instituzioekin. Pertsonak bueltatzen direnean beti egiten da ingurura bisita bat nazioarteko babesa ikustarazteko, programan parte hartzen duten erakundeekin egoten da, Giza Eskubideekin lan egiten duten beste erakunde batzuekin; eta gero, herrialde horretako instituzioak bisitatzen dira ere bai, nagusiki, babes eta segurtasun gaietan ardua gehien dituztenak. Ez da %100 hutsik gabea, kasu guztietan erantzukizun finala biktimetan dago, baina, modu batean edo bestean, babes baldintzetan, pertsona horiek haien lanarekin han jarraitzea ahalbidetzen du.


🕒 **CEARren lan ildoetako bat, zuen proiektu guztietan genero ikuspegia bultzatzea da. Nola aplikatzen da hori kasu honetan?**

Genero indarkeriak, genero aldagairen bat duten biolentziak, nazioarteko babesaren barruan sartzea

aldarrikatu nahi dugu. 2009an espainiar babes-etxe legean jasotzea lortu zen, baina oraindik erronka garrantzitsuak falta dira. Estatu espainiarrak apenas aitortzen baditu babes-etxea eskatzen duten pertsona errefuxiatuak, genero motiboengatik de-nean, aitortza askoz txikiagoa da.

🕒 **Zein motatako biolentziak sartuko lirateke genero motiboetatik eratorritako jazarpenetan?**

Genero arrazoiengatik ematen diren jazarpenak emakumeak edo LGTBI pertsonak, haien identitate edo orientazioagatik sufritzen dituzten biolentziak aitortu egiten ditu. Abaniko oso zabala da: esplotazio sexualen helburua duen salerosketa, sexu organoen mozketa, behartutako ezkontza, LGTBI pertsonen aurkako gorrotzko erailketa. Badira motiboak, esplotazio sexualen helburua duen salerosketa bezala, geroz eta ohikoagoak direnak. Horrek mugen itxiera politikekin lotura du zuzenean. Emakumeek ez badute ibilbide segururik egiteko aukera, askoz probableagoa da sare hauetan erortzea. Geroz eta eskaera gehiago daude, baina babestuen kopuruak oso baxua izaten jarraitzen du. Babes-etxea eskatzen duten pertsonak poliziek zein Babes-etxe eta Aterpe Bulegoko funtzionarioek elkarriketatzen dituzte, Barne Ministeritzaren parte direnak. Haiek erabakitzen dute pertsona bat iheslaria den edo ez. Gero, alor judizialera jo dezakegu, erabakia balio-gabetu nahi den kasuetan, baina pertsona hauek Giza Eskubideen ikuspegi oso baxu dute, eta genero perspektibarena beherengoa.



GENEROA ETA BIOLENTZIAREN LENGOAIA ELKARREKIN SORTZEN DIRA

► MARTA MATO

“Defender a quien defiende” obra kolektiboko kapitulu batean, Marta Matok Estatu espainiarrean mugimendu feministak pairatzen duen errepresioa aztertzen du. Neoliberalismoak inposatzen dituen genero ereduaren inguruan hitz egin dugu berarekin, eta norberarengan iraultzaileak diren formulekin Estatuari eta genero rolei aurre egiten dieten ekintzaileen erresistentzia estrategiei buruz.



🕒 **Mugimendu feminista mugimendu errepresaliatu bat al da?**

Bai, baina errepresioa ez dago oso ikusgai, ez da ezta kontzeptu orokorretan adibide gisa ere ageri. Mugimendu anarkistak eta libertarioak, eta neurri txikiago batean mugimendu ekologistak, errepresioaren paradigma gisa agertzen dira beti. Kaleko borroka politikoen eredu berrien oinarritzko bektore den arren, gutxitan azaltzen da komunikabidetan sufitzen duen errepresio espezifikoak. Somosaguas kaperaren kasuan, adibidez, Rita Maestreri esker egin da oso publiko. Errepresioaz hitz egiten den guneeetan ere ez da aintzat hartzen feminismoa mu-

gimendu errepresaliatu moduan, eta hori funtsezko borroka bat bezala ez onartzeko modu bat da.

🕒 **Eta bizi duen errepresioak, ba al du berezitasunik?**

Bai, txikitasunean indarkeria bereizgarria sortzen duten kontuak daude. Ez da bakarrik bereizten den ahotsaren aurrean indarkeria politikoaren kontua, emakumeen gorputzen aurkako indarkeria ere bada. Bada bideo bat, 15Mren lehen urteurrenekoa, zeinetan istiluen kontrako poliziek sekulako karga egiten duten, ohitu egin garen zerbait orduan, eta gero polizia batek emakume bat nola hartzen duen ikusten da, neutralizatu egiten du eta hormaren

kontra ipini. Bera neskaren atzean dago, eraso sexual argidun postura batean. Hori honelako zerbitu adierazi nahi duen diskurtso ekintza bat da: "Ordena publikoa mantenduko dugu protestan dabiltzanak kontrolatuz", baina ere: "Emakumeak kontrolatuko ditugu, eta funtsezko dikotomia kolokan jartzera ausartzen diren gorputz horiek diziplinatu". Emakumeak babesteko hori gara, komunitateen, familien, ohorearen eta feminitatearen esentzia gorde dugunak. Gerraren teorian, gizonezkoen haien emakumeen ohorea babesteko borrokatzen dute, eta irabazteak etsaiaren emakumeen gorputza konkistatzea adierazi nahi du. Ekintzaileek dikotomia horrekin hausten dute, nolabait esateko. Espazio publikoan agertzen dira, ez babesteko gorputz gisa, gorputz mehatxugarri bezala baizik.

🕒 **Eta zein errepresioaren aurrean egiten dute topo?**

Maila askotako errepresio bat da, elkar lotutako diskurtsoetatik abiatuta sortzen dena: legeak, baina baita ezerezeko diskurtsoetatik ere, eguneroko diskurtso txikietatik: udaltzain batek nola begiratzen zaituen edo komunikabideek zer kontatzen duten. Instantzia ezberdinetatik etorritako diskurtsoak, haien artean lotuta daudenak eta elkar babesten direnak. Guzti honek mota guztietako indarkerietan oso ikusgai egotea probokatzen du.

🕒 **Estatu espainiarren mugimendu feministari egindako errepresio kasuak aztertu dituzu, zer topatu duzu?**

Mugimendu feminista mugimendu disidente da, ez bakarrik egungo ordena politikoaren aurrean, komunitate politikoak eraikitzen duen genero ereduaren aurrean ere bai. Eskalera Karakolaren kasuan, esaterako, Madrileko Komunitatearen espazioaren aurkako buroerrepresioa hasi zenean, gizonezko polizia bidaltzen zituzten beti. Mixtoa ez den espazioa da eta horrek bere logika propioa hondatzen du. Poliziak espazioko kideak interpelatzeko mo-

dua "Mari-zikin" eta "Bollerak" deitzea zen. Gorroto delituak bultzatzeko saiakera kontsidera genezake hori. Kontuan hartu behar dugu ez duela helburu bakarrik protesta baldintza orokorretan zapaltzea, ordena neoliberalak sostengatzen duten genero rolak bereziki babesten ari diren momentu batean gaudela. Rol tradizionalago eta zurrunagoetara itzultzea behar dute.

🕒 **Zertarako?**

Egungo boterea mantentzeko beharrezkoa da: industria militarra, "kanpoko etsaiaren" diskurtsoa mantentzeko, kapitalaren metaketarako hobi berrietarako. Enplegua oso eremu eskatua den momentu batean; enplegua ez baita erreala, finantzarioa baizik; sistemari ez zaio emakumeak aukera berdintasunean lehiatzea interesatzen, nahiago dute erreproduzio lanak gure gain hartzea itzultzea.

Orain emakumeak kontraesankorrak diren diskurtsoen aurrean aurkitzen garen une batean gaude. Alde batetik, diskurtso neoliberalak geroz eta diru gehiago irabaztera bultzatzen gaitu, arrakastatsuagoak izatera; baina sistema horren subjektu izateko gure ama eta emazte tradizionalaren roletik bereizik beharko genuke. Arrakastatsuak izan behar dugu, baina marko politikoak emakumea etxebizitzari eta amatasunari lotutako metafora sortzen du. Lege proposamen batzuk ikustea besterik ez dago: Gallardónen Abortu Legearen erreforma saiakera, lesbianeiei lagundutako erreproduziora sarbidea ukatzea, partekatutako zaintza legeak edo sententzia judizial asko. Gainera, erradikalki ezberdina den eredu bat proposatzen ari garen emakumeen ahotsak isiltzen saiatzen dira etengabe, krisiaren pisua isilpean eusteko prest ez gaudenonak.

🕒 **Estatuen autoritate deribaren etapa berri honetan, zein genero eredu mota lirateke konenigarri?**

Elkarren artean sortu daitezkeen genero metafora espezifiko batzuk behar dira. Generoa eta indarke-

riaren lengoia elkarrekin sortzen dira. Biolentzia egoteko maskulinitate hegemoniko eta militarizatuaren kontzeptuak eta ereduak behar dira. Maskulinitate horien existentzia propioak estatu errepresiboak, gerrak... existitzea ekartzen du. Errepresioak nola funtzionatzen duenaren inguruan kezkatzen den jendea, genero metaforak zeintzuk direnaren inguruan kezkatu behar da, indarkeriaren instituzio guztietan oinarritua dagoena: Estatua bere zentzu osoan, botere judiziala, industria militarra.

🕒 **Baina genero rol tradizionalagoak defendatzen diren bitartean, mugimendu feminista geroz eta indartsuagoa da...**

Gallardónen erreforma saiakera feministen erai-kuntzaren oso momentu garrantzitsua izan zen. 15Mk nozio feministen oinarritzko pedagogia orokorraren une bat suposatu zuen, oso potentea, zeinetan feminismoarekin lotuta ez zegoen jende asko bizitzaren jasangarritasuna bezalako oinarritzko nozioen jabe izatea lortu zen. Ertamerika eta Latinoamerikatik ekonomia feministak ekarritako ideia bat da hau, non emakumeak aldaketan zorrotz-tasunaren aurrean prekarizateatik antolatzeari ekin zioten. Emakume gazte asko onartzen ari diren lege errepresibo guztiei esker ari dira lotzen feminismoa. Boterea eta erresistentzia aldeberekoak dira beti, diskurtsoen talka dira. Erresistentziak boterea sortzen du, eta botereak erresistentzia.

🕒 **Emakume gazteenekin berdintasunaren ispi-lua hausten ari al da?**

Ez dut oso argi, mikro munduetan bizi gara eta. Mundu handian beldurra sortzen duten populazio gazteenaren inguruko genero indarkeriaren inguruko informeak daude, baina geroz eta gehiago dira inizatiba eta erreferenteak. Haien rol tradizioaletik bereizitako geroz eta emakume eredu gehiago izaten hasi gara, gazteak ordezkatuak senti daitezkeenak, hortik aurre egiteko indarra hartzeko. Kontuz ibili behar da, erreferente kultural horietako asko superfizialak direlako eta ez digutelako laguntzen sistemaren sustraia ulertzen. Badugu ezkontza, badugu Chueca, Badugu Pikara Magazine, inseminazioa... Aski da! Ez da egia. Sistema superfizialki egiten da identitate jakin batzuen kargu. Gainera, gero, neoliberalismoarentzako, aniztasuna asko saltzen duen zerbeit da. Espezialitateak saltzea. Kategoriat airtzen da hortik sekulako mer-

katu-hobia sortzen delako. Kapitalismo arrosa edo Lavapieseko aniztasun kulturala, adibidez.

🕒 **Estatuak kontuan hartzen al du mugimendu feminista?**

Uste dut kostatzen zaiela, ez zaiela interesatzen, erantzuteko toki erreale bezala ikusten dugu eta horrek gizarte honetan emakume izatea nola jasotzen dugunarekin zerikusia du. Boterea gizonengan dagoela baieztatzen duen ideia mantentzen jarraitzea interesatzen zaie. Onartezina da emakumeek ordena publikoa mehatxatzea gure eremua ez delako publikoa, pribatua baizik. Gero, paternalismoa dago. Oso interesgarria da ere zein lege erabiltzen dituzten feminismoa kriminalizatzeko aztertzea. Ez dira desobedientzia delituak edo autoritateen kontrako atentatuak hainbesteko maiztasunarekin aplikatzen. Somosaguaseko kaperaren kasuan, sentimendu erlijiosoak mintu izana leporatu zieten. Non kokatzen gaituzte? Zein irain mota egiteko gara sentikor? Gallardonen gaiaren harira, bizitzaren aldeko manifestazio bat egon zen, zeinetan Guerrilla Abortistako kideak oholtzatik pankarta bat zintzilikatu zuten. Zein da haien aurkako buroerrepresio prozesua abiatzeko erabili zuten herritarren segurtasun legearen artikuluaen aurrekoa? 23.4 artikulua, huts egite larri bat zela esaten zuen publikoan erreakzio biolentoak probokatzea.

Emakume ekintzaileen gorputzak ordena publikoa arrotz dute, problematikoak dira eta ezarritako ordenaren kontra protesta egiten dutelako diziplinadunak izan behar dira, gizonetzako babesten dutenaren eta emakumeak babestuen direnaren dikotomiarekin hautsi egiten dutelako. Feminismoak arriskutsuak dira ordena publikoarentzako, nahiz eta ikusezintasuna egon, ez-aitortza bat, garrantzirik ez emateko saiakera... Baina betidanik zapalkuntza sistemen sustraia moztera doaz eta horretan oso sakonki pentsatzen hasten dira. XIX. mendean, herritarren ikuspegia handitu zen, XX. mendean pertsonala politikoki bihurtu zuten; emakume marxistek erreproduktzioaz hitz egiten zuten kapitalaren metaketaren inguruan behar-rean; emakume beltzak arrazaz dihardute mundu-sistema honen hierarkiak ezartzen diren tokiaz mintzo direnean; nazioarteko Harremanetan adituak diren feministek zalantza jartzen dute Estatua- ren ideia. Oso kontu sakonak dira, ordena soziala

hankaz gora jartzen dutenak, haien artean disidentenak diren borroka moldeekin gainera: artetik, jolas mundutik, alor emozioaletik...

🕒 **Eta horrek gutxiago kontuan hartzea dakar?**

Ez gaituzte kontuan hartu nahi. 15M maila ludiakoaren jabe egin zen, festaz, arteaz, gorputz adierazpenaz... Sexualitateaz, ez. Feminismoek sexualitateak ere egiten dute borroka. Nik uste dut hasiak direla ulertzen protestatzeko modu horiek arriskutsuak direla, nahiz eta ez izan barrikada bat edo ez egon harriak botatzen. Egun, dena kriminalizatzen da badakitelako feminismoa ondo egiten ari dela, protestatzeko maila askotako moduak dituela: ludikoak, artistikoak, korporalak. Jakina ez dugula kalean barrikadekin borrokatzeko hainbeste tradizio. Hori ezinezkoa da! Emakumeak semeak zaintzen egoten ginen!

🕒 **Zer iruditzen zaizkizu manifestazioak gauze egiteko proposamenak, biolento erakusteko ideiarekin, altu eta argi esateko beldurrak aldeztatu behar duela?**

Niri primeran iruditzen zait. Nik uste dut beldur asko dagoela, autoerantzunkizunagatik, lagunkorrek, dibertigarriak, gerra-egileak iruditzen. Ez nago horrekin ados. Ezin digu protesta eredu horrek soilik balio, baina ekintza horiekin, hau esaten ari gara: Arriskutsuak garena! Ez gaitzazue menpeko subjektu politiko gisa tratatu, baztertutako subjektuak bezala. Subjektu politiko zentral bat gara, eta konfliktuan sartu behar bada, sartuko gara.

🕒 **Uste duzu prest gaudela gatazkan sartzeko?**

Bagaude gatazkan. Mugimendu feministak esan nahi duena kalea gurea dela da, horrela jarraitzen badute antolatuta beharra izango dugulako. Arazoa mundu handian babesa sekula ez dugula izan da. Genero indarkeriaren aurkako politikak zeintzuk diren begiratzen baduzu... Pare bat iragarki! Horrek ez du ezertarako balio. Egitura lehertzeko potentzia den zerbait sortu behar da: dudaren aurrean, zu alarguna. Hori botere publiko guztiek esan beharko ligitu. Defentsa legitimoa da.

🕒 **Eta gero, alargun ikusten diren emakumeak babestu ahalko genituzke?**

Maila askotan konplikatuak dugu. Feministak ere gehiago, egitura historiko zapaltzaile baten au-

rrean gaudelako. Nola ez da izango zaila benetan erantzun azkarrak egotea, maila askotakoak, mugimendu feministaren barruan? Ekintzaile izateko denbora eta baldintzak behar dituzu, eta biziraupenerako eta pobreziarako feminizazio une batean gaude.

Ekintzaile izateko baldintza okerragoetan gaude emakumeak. Nola antolatuko gara aitona, alabak zaintzen ditugun bitartean, eta jardun zatikatu eskasean biziraunez arduradun autoritarioekin elkarbizi garenean? Maila guztietan behar ditugu estrategiak, eta hori zaila da: feministotik defentsa sare juridikoak izatea zapaltzaile judizialen genero diskurtso guztietara adi egoteko. Epaitegien jendea izan beharko genuke tratatu matxista dokumentatzeko, alerta sareak, eta biolentzia matxisten biktimei erantzun azkarra emateko... Kolektiboetan, unibertsitateetan, haurren topalekutan. Maila juridikoan formakuntza duten emakumeak; alerta komunitarioa zabalduko duten kazetariak, haien gorputza epaitegien aurrean jarriko duten emakumeak, polizia aurrean.

🕒 **Modu batean, Estatua kargu egin denetik, maila formalean behintzat, borroka zuzenean abandonatu al dugu?**

Sare komunitario informalek jada ez dute balio. Ekonomiaren aurpegi berriarekin hori desagertu egin da. Orain balore pribilegiatuena individualismoa da. Neoliberalismoak goia jo du, eta eskubide individualak eskubide kolektiboen gainetik lehenesten dira. Jada ez gara bizi lehen bizi ginen bezala. Jada ez gara kortetan bizi, eta ez dugu komunitatea eraiki dezakegun auzo bat, geroz eta atomizatuago baikaude, inposatutako mugikortasun batekin: prekaritate pixka bat gutxiago izango dugun tokia bilatzea.

Sare komunitarioak galdu egin dira. Federici eta feminista marxistak ia ez dute balio: kapitalismoaren iritsierarekin toki komunak galdu dira, eta bere desagerekin, arriskuaren aurrean bakarrik gaude. Baina eske langartuago gaude, prekarizatuak, une berean espazio askotan bizi gara... Asanblada batera joatean salbu senti zaitezke, baina lanean? Lanean salbu egon zaitezke, baina etxean? Unibertsitatean salbu sentitu zaitezke, baina zure familian? Sare asko behar ditugu, eta haien artean oso konektatuak egon behar dira.

EZIN DA GIZA ESKUBIDEEN ALDE LAN EGIN OSATZEN DUTEN GIZONEZKO ETA EMAKUMEAK ZAINDU, BEGIRATU ETA MIMATZEN EZ DITUEN ERAKUNDE BATETIK

► ANSUR KOLEKTIBOA

2007an hasi zuen bere ibilbidea. Ertamerika eta Kolonbiari lotutako talde batek osatua dago; mugimendu sozialetako, mehatxatutako komunitateetako, motzean, gatazka armatuetatik eratorritako biolentziaren biktimak diren pertsonen defentsan lan egiten dute. Injustiziaren kontrako eta defentsaren aldeko borrokarako borondateak batzen ditu: "Justizia gaur egun irainduta dago". Ansur runa bat da, iparraldeko herrien alfabetoko letra, alfabeto sinpleaz gain, egiteko magikoetarako erabilikia. Hitzak, elkarrizketa, harrera, harremana esan nahi du. Posta elektronikoko bidez, partaideetako birekin hitz egin dugu: Esther Domenech eta Luis Pérez Miguelekin.



🕒 Zer esan nahi du autozainketa eta babesak?

Autozainketa eta babesak funtsezko bi estrategia bezala uler genitzake, eskubideen alde lan egiten duten pertsona guzti horien erakundearen barnean txertatzea beharrezkoa dena, zilegia denaren alde borrokatzen dutenak, justiziagatik; duintasuna eta bizitza bilatzeko amore ematen ez dutenak. Erresistentziarako bi modu dira erantzukizun politikoarena eta irmotasunarena; aurrera eramaten ari den borroka zilegitzen duen apustua garbia. Ez egiteak,

modu batean, zigorgabetasunari, biolentziari eta injustiziari espazioak oparitzea suposatuko luke.

🕒 Zergatik da hain garrantzitsua mugimendu sozialetatik ildo honetan lan egitea?

Defendatzaileen eta hauen erakundearen kontra erabilitako biolentziak propio egindako estrategia bati erantzuten dio, intentzio eta kalkulu jakinarekin diseinatua, isiltzea, banatzea, isolatzea, fisikoki zein psikologikoki mintzea, desagitea... lortzeko. Babes-

tea, indartzea zein zaintzea borrokarako estrategia da mehatxuren bat jasaten duten pertsona guztientzat, baita ezarritako botereentzako ere, haien interesen defentsan eskura dituzten baliabide guztiak jartzen dituztelarik eskubideen defendatzaileen borroka guztiak geratu asmoz.

🕒 **Giza eskubideen defendatzaileak emakume defendatzaileak baino babestuago daude? Zergatik?**

Defendatzaileek mehatxu bat islatzen dute. Orain, argi izan, Ertamerikako Iniziatibaren “Giza Eskubideen aldeko Emakume Defendatzaileen kontrako Erasoak 2012-2014” Informean jasotzen den bezala, emakumeek, egunero berdintasuna, justizia eta bakea lortzeko lanean dihardutenek, Giza Eskubideen diskriminazio, biolentzia, zigorgabetasun eta bortxa egoeran garatzen dute haien lana, haien segurtasuna eta ekarpena arriskuan jarriz. Ikusezintasuna, anonimotasuna, emakumeak ezkatatu nahi dituzten “mundu grisa”, arrisku handidun elementuak dira. Ikusezintasunak burutzaileei biktimentzako zigorgabetasun handiagodun espazioak eskaintzen dizkie.

Emakume defendatzaileen kontrako indarkeria, antolatuta dauden emakumeen kontrakoa, gutxitan aitortzen da den bezalako. Pairatzen dituzten mehatxuak, erasoak edo erailketak, askotan, “emakume baten kontrako erasotzat bakarrik” jotzen dira, eta, era honetan, imaginario patriarkatu eta marxista indartzen da. Emakume bat bortxatzeko, era-

sozteko eta umilatzeko helburu izan liteke emakume izate hutsagatik, eta horrek bestelako agertoki posibleak ez direla onartzen esan nahi du. Ez dago emakume antolatuentzako tokirik, emakume borrokalarietzako, defendatzen duten emakumeentzako. Eta “defendatzaile” errotulua onartzen denean, imaginario kolektiboan ia automatikoki mota honetako pentsamenduak agertzen dira: “Egin ez balu”; “Etxean geratu balitz”, edo “Ez balitz saltsan sartuko”.


Emakume defendatzaileen lana, nagusiki, bi arrazogatik saiitzen dira isiltzen: emakumeak paper aktibo eta politiko batetik irudikatzen dituztelako, justizia sozialaren eta bakearen aldeko borrokan; eta beraien ahots, kontsigna eta formatu propioekin egiten dutelako. Hori ezin dute hain errez onartu botere politiko, ekonomiko eta militarra dutenek, hain matxistak direnek. Horri egin nahi zion keinu Hina Jilanik, NBEko kontalari ohiak, Giza Eskubideen inguruan emakume defendatzaileek haien lanarekin gizarteetako “pisua mugitzen” zutela esatean, aurreiritzi eta estereotipoetatik sortuak baitira. Emakume hauek mendekotasun ideiarekin hausten dute, ama-emazte-alaba manakorrarekin, pasiboa, ahotsik gabea eta begirada altxatzeko gaitasunik gabea.

Bigarren arrazoa, eremu publikoan geroz eta profil altuagoa, nazioarteko foroetan aitortza handiagoa, lortzen doazen heinean, haien aurkako erasoak matorrotzea geroz eta zailagoa dela da, eta geroz eta zailagoa dela emakumeek eta emakumeen erakun-

HERRIEN BORROKA PROZESUEI KOMUNIKAZIOTIK EGITEN DIEGU EKARPENA

► BASHE NUHEM

Komunikazio Indigenaren Elkarte Komunitarioko Koordinatzaile Orokorra da duela lau urtetik. “Izendapena sorpresa izan zen niretzako”, aitortu du. Erakundeak, gehienak gizonetako dira. Giza Eskubideen defentsan eta herri indigenen lurraldeen defentsan komunikazioak duen zereginaren inguruan hitz egin dugu berarekin.



🕒 Zergatik harritu zinen hainbeste zure erakunde-ko koordinatzaile orokor izendatzean?

Oso matxista den komunitate batean emakumea naizelako. Non sartzen nintzen jakinda onartu nuen. Desafio konstantea da lehen lerroan egotea emakumea eta indigena izanda. Ematen du jende guztia dagoela zu noiz erratuko zain, baina komunitateetako borrokari ekarpenen bat egiteko prestatuta gaude. Seme-alabak zaintzen baditugu, etxeaz arduratzen bagara, zergatik ez gara egongo lehen lerroan? Emakumeok potentzial handia dugu, eta esateko gauza asko. Gaur-gaurkoz emakume asko

publikoki hitz egiteko beldurraren muga hausten ari dela ospatzen dut, adibidez. Nahiko garrantzitsuak diren pausoak ematena ari gara. Hau pentsaezina zen duela 20 urte!

🕒 Nolakoak dira aurrera eramaten dituzuen proiektuak?

Proiektuak beti dira, labur esanda, komunitatearenak, ez erakundearenak. Gure ikus-entzunezko lanak modu kolektibo batean egin nahi ditugu. Komunitatearekin adostu beharra dago, nola filmatuko dugun ikusi, komunitateak baitira historia

idazten dutenak. Gu gidoiaren alde teknikoaz arduratzen gara, doikuntza batzuk konpontzen ditugu, baina azken hitza dutenak komunitateak dira. Guk, komunikatzaile gisa, egiten duguna alde teknikoan eta edizioan laguntzea da.

🕒 **Zer nolako pelikula motak ekoizten dituzue?**

Ia beti dokumentalak, baina urte hauetan lehen-dabizikoz fikzioa egin dugu, beti jotzen genuelako dokumentalen mundura, komunitateen errealtateak islatzen diren toki horietara, garatzen dituzten prozesuak, haien borrokak... Baina inoiz ez genuen fikzioa egin. Komunitateek nobelen kontua asko ikusten zutela ohartu ginen. Orduan, esan genuen: "Hemen, eragiteko erreminta hauek erabiliko ditugu ere!".

🕒 **Komunikazioaz identitate gisa hitz egiten duzue. Zer esan nahi duzue horrekin?**

Komunikazio prozesu hauek laguntzeko Estatuaren aldetik babesa izateko lan egin behar dugula esan nahi dugu. 2009an lortu egin genuen, eta emakumeentzako zein neska-mutilentzako trebakuntza eta formakuntza asko egiten hasi gara, komunikazioaren bidez ahalduntzea sustatzeko. Inurri lana egin dugu, esaten duten bezala. Herrialde osoan 27 irratii indigena instalatzea lortu dugu.

🕒 **Zer nolako pisua dute irratii hauek?**

Chaco lurralde argentinarrean, Impenetrable izeneko eremu batean, Qom herriko komunitate indigenak zentralizatuta daude. Lurralde horiek 300.000 hektarea baino gehiago barne hartzen dituzte. Hor irratii ugari instalatu genituen. Horrez gain, modu estrategikoan, Resistencia izena duen hiri batean bat beste bat jarri genuen ere bai. Komunitateetako batzuk bertan errotuta daude, lurralde kontuengatik arazoak izan zituztenak eta hirira lekualdatuak izan zirenak. Horrela hasten da hizkuntzaren galera, eta irratii komunitarioetan praktikatu egiten da. Guk, komunikazio erakunde bezala, ama hizkuntza lehenestea bultzatzen dugu, zentzu horretan. Poli-

tika, kultura eta historiadun edukiak dituzten programak emititzen ditugu, haurtzaroarekin zerikusia dutenak, eta generoaren ingurukoak. Genero gaiei buruzko programen kasu zehatzetan, arazo asko egon ziren zentzu horretan.

🕒 **Zein arazo?**

Buruzagi batzuei gai honek barrenak mugitzen zizkien. Guk emakumeen egoera ikusgarri bihurtzea, emakume batzuek sufritzen duten biolentzia, lortu nahi dugu; eta, modu bateratu batean, zer egin daitekeen ikusi. Gure komunitatearekin, gure erakundeekin, zer egin dezakegu biolentzia sufritzen duten emakume horiek lagundu ahal izateko? Herri indigenen inguruko nazioarteko edo nazio markoko hitzaldi bat ematera goazenean eskubideei buruz hitz egiten dugu, orduan, kontsekuentek izateko, has gaitezen esaten duguna praktikan jartzen, emakumeekin ere bai.

🕒 **Eta programa politikoetan, zeren inguruan hitz egiten duzue?**

Politikaren kasuan lurralde gatazkaren gaia lantzen dugu: buruzagien jazarpena, erakundeen lehen lerroetan dauden ahizpena. Moqoit herriak bere lurraldeetako gehienak galdu ditu ia-ia soja transgenikoaren areagotzeagatik, zeinak kalte asko sortu dituen, lehen komunitateek ez zituzten gaixotasun asko pairatzea ekarri duelako. Nahiko gai konplikatuak dira, komunikatzaileen artean jazarpena ekarri dutenak. Guk, erakundearen baitan, bizitzak ere galdu ditugu. Gure ahizpetako bat oso modu basatian bortxatua eta eraila izan zen.

🕒 **Nor dago jazarpen eta erailketa horien atzean?**

Gure kidea legez kanpoko lurren salmentaren eta soja transgenikoaren areagotzearen inguruko ikerketa bat egiten ari zen. Juana oso konprometitua zegoen komunitateen prozesuetan, baina, batez ere, komunikazioarekin. Indigenak pobreak direnaren irudiarekin hautsi nahi zuen, espresatzen ez

dakitenarekin... Bere lanari esker, agerian geratu zen enpresa handi batean aurrerapena, eta kontzientzia gara bat ere inporta ez zaion multinazional handi baten aurka borroka egiten ari garenaz.

🕒 Zein pisu du komunikazioak kasu hauetan?

Rol garrantzitsua du, egoera bistaratzen duelako. Lehen, erakunde propioek, ez zuten gaiarekiko interesik. Askok kostatu zitzaizkien ulertzea erreminta hauek komunitateen borrokarako tresna direla. Horregatik, oso lan luzea egin behar izan genuen. 1998 urtean hasi ginen irratia egiten, eta buruzagi propioek zein ordezkariak ere hala zioten: "Utzi denbora galtzeari! Zer da hau? Hemen borroka martxak egitera joatea da, asanbladak egitea... Irratia egitearen hori, lataratutako programak, grabatutakoak, denbora galtzea da". Borroka prozesuari komunikatibotik egin nahi diogu ekarpena, ardura askorekin.

🕒 Zein garrantzi izan dezake honek Giza Eskubideen defentsan?

Mendebaldeko komunikazioa gai indigenen buruzko isilunearen arduradun askoren arteko bat


izan da. Jazarpenak, errepresioa edo eskubideen bortxaketa bezalako kontu puntualak estaltzearen erantzule zuzenak direla esan genezake. Laugarren boterea da, labur esanda. Guk behar dugu, eta gure egoera ikustarazteko erabili dezakegun erreminta bat da. Baina gure lorpenak bistartzeko lanabes handi bat ere bada.


Gure konkistak. Argentinaren kasuan, lege baten bidez komunikazioa identitatearekin errespetatzea lortu dugu. Guk, gu falta garenean, herri indigenak, demokrazia federalaz, federalismoaz edo ahotsen aniztasunaz ezin zitekeela hitz egin esaten genuen. Ahotsen aniztasunaz hitz egiten bada gu ere presente egon behar gara orduan.

Oraingoz, oso sendotuta eta antolatuta gaude, hori da garrantzitsua. Beti izan gara modu komunitario batean antolatu den herri bat, izan ditzakegun jazarpenen gainetik. Oso indartsuak gara zentzu horretan. Kolpatu gaituzte, mehatxatu gaituzte, bidean lagunak galdu ditugu, baina oraindik zutik jarraitzen dugu konbentzituta gaudelako komunikazio erreminta hau dela eraldaketa soziala, eraldaketa sozialerako da.



OHARRAK







MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

¿Qué mundo
queremos?

hitzekoa de seres, y no de teneres
zein izakiek, de mujeres
ez edukitzeak,
osatzen dutena, libres

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu
urteroko kuota batekin,

diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.

Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,
pertsona guztientzako justua den mundu baten alde
egingo duzu.



Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuan:

FIARE Banca Etica ES36 1550 0001 20 0000688622

LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234